

# PROBA ESPEZIFIKOA

2011ko PROBA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

### **Azalpenak**

Probaren iraupena: ordubete

Erantzun iezaiezu zortzi ariketa hauetako lauri.  
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio du)

1. Filosofo presokratikoak:  
Egin ezazu aforismo hauen iruzkina:
  - “Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”.
  - “Gerra da guztiaren aita”.
    - Zer filosofoenak dira?
    - Zer esan nahi dute?
2. Idealismo platonikoa eta haitzuloaren mitoa: adieraz itzazu, labur, mito ezagun horren oinarriak, eta azaldu mito horretan agertzen diren sinbolo batzuen esanahia.
3. Aipatu itzazu kristautasunak kultura grekolatindarrari erantsi zizkion oinarritzko ezaugarriak, eta, batez ere, azter itzazu desadostasun handiena eragin zuten puntuak.
4. Azaldu eta azter ezazu zer egitura duten San Tomas Akinokoak Jainkoaren existentzia frogatzeko eta arrazoimenaren eta fedearen arteko erlazioak azaltzeko erabiltzen dituen argudioek.
5. Zerrendatu itzazu XVII. mendeko ezaugarri politiko, filosofiko, zientifiko eta kulturalak, eta adieraz ezazu zer eragin izan zuten Descartesen filosofian.
6. Identifika itzazu arrazionalismoari dagozkion ezaugarriak eta enpirismoari dagozkionak, eta azaldu ezazu erantzuna:
  - a) Gure ideia guztiak eskuratu egin ditugu.
  - b) Baliozko jakintza-iturri bakarra arrazoimena da.
  - c) Jaiotzetiko ideiak ditugula baieztatzen du.
  - d) Gure jakintza osoaren iturria esperientzia da.
  - e) Ez dago jaiotzetiko ideiarik: adimenean ez dago ezer aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

---

7. Azaldu ezazu *alienazio* hitzaren esanahia, eta aipa eta azaldu itzazu, eskematikoki, Marxek bereizten dituen bi motak.
  
8. Adieraz itzazu “jauntxoen moral”aren eta “esklaboen moral”aren arteko desberdintasun nagusiak, eta azaldu itzazu “ahulen moral”ari egin zion kritikaren funtsezko alderdiak.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

## **EBAZPENA: FILOSOFIAREN HISTORIA (2011ko maiatza)**

### **Azalpenak**

Probaren iraupena: ordubete

Erantzun iezaiezu zortzi ariketa hauetako lauri.  
(Galdera bakoitzak 2,5 puntu balio ditu)

#### **1. Filosofo presokratikoak:**

**Egin ezazu aforismo hauen iruzkina:**

- **“Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”.**
- **“Gerra da guztiaren aita”.**
  - **Zer filosoforenak dira?**
  - **Zer esan nahi dute?**

#### **Erantzuna:**

Bi aforismoak Heraklitorenak dira, eta hau litzateke haien esanahia:

• **“Pertsona bat ezin da bi aldiz bainatu ibai berean”** esaldiak islatzen du naturak etengabe jasaten duen aldaketa; funtsean, tentsioa eta dinamismoa. Naturan dena ari da etengabe aldatzen, ibai bateko ur-lasterra bezala, non urak etengabe ari baitira berritzen. Ibaiko ur-lasterra da Heraklitoren filosofiaren sinboloa: *“Panta rei: dena dabil, ezer ez dago geldirik”*.

• **“Gerra da guztiaren aita”**: naturak jasaten duen etengabeko dinamismo hori etengabe lehian dabiltzan aurkarien arteko borrokak azaltzen du: hotza – beroa; gaztaroa – zahartzaroa; eguna – gaua. Aurkarien arteko borroka edo gerra horrek sortzen du naturaren dinamismoa azalduko lukeen tentsioa. Aurkarien edo antitesien arteko borroka bere metodo dialektikoan jaso zuen Hegelek. Marxek baieztatu zuen klase-borroka dela historiaren motorra. Ikus daitekeenez, Heraklitoren itzala luzea da.

**2. Idealismo platonikoa eta haitzuloaren mitoa: adieraz itzazu, labur, mito ezagun horren oinarriak, eta azaldu mito horretan agertzen diren sinbolo batzuen esanahia.**



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

### **Erantzuna:**

Ideiak dira Platonen filosofiaren ardatza, eta gauzen *eidosa* edo esentzia adierazten dute. Benetako errealitatea dira, zentzumenek ematen didaten itxuraren munduaren aldean. Platonek, bere filosofiaren puntu nagusiren bati heltzen dion bakoitzean, mitoa erabiltzen du. *Errepublik*a elkarrizketako haitzuloaren mito ezagunean, zenbait sinbolo ageri dira haren pentsamendua argitzen laguntzen digutenak, eta giltzarriak dira haren idealismoa ongi ulertzeko.

Mitoan ageri den ideia garrantzitsuena Platonek Eguzkiarekin identifikatzen duen Ongiaren ideia da. Ideiarik goitarrena da, eta ideien hierarkian gorenean dago. Zehazki, Ongiaren ideiatik ateratzen dira: Edertasunaren ideia eta Justiziaren ideia. Ongia, Edertasuna eta Justizia dira pentsamendu platonikoaren hiru ideia garrantzitsuenak. Alegoria platonikoaren arabera, Eguzkiaren argiak (Ongiak) deuseztatu edo argitu egiten ditu ezjakintasunaren haitzuloan dauden itxuraren itzalak. Bestalde, Ongiaren ideiak askatu egiten gaitu zentzumene kateetatik, zeinak itxuraren ilunantzari lotzen baikaituzte; mundu adigarriaren edo ideien munduaren argira hurbiltzen gaitu, eta gorputzari lotua dugun arima ideien mundurantz igotzen du. Platonen mezua argia eta irmoa da: "Ongia ezagutzea" oinarritzkoa da jakinduriaz jokatzeko, bai bizitza pribatuan, baita publikoan ere. Ondorioa begi-bistakoa da, eta, berriz ere, filosofo agintedunaren ideiarda garamatza: Ongiaren ideiarik bakarrik begira egoteko gai direnek soilik agindu ahal izango dute zuzentasunez.

### **3. Aipatu itzazu kristautasunak kultura grekolatindarrari erantsi zizkion oinarritzko ezaugarriak, eta, batez ere, azter itzazu desadostasun handiena eragin zuten puntuak.**

### **Erantzuna:**

Kristautasunak berrikuntza hauek ekarri zituen, batez ere:

- Kristautasunak historiarekin lotzen du Jainkoa: Jainkoa zuhurra da, eta herri jakin bat eta garai jakin bat hautatzen ditu.
- Kristautasuna eta egia: kristautasunak egiaren jabe bakar gisa aurkezten du bere burua: "Ni naiz egia".
- Monoteismo kristauak argi eta garbi egin zuen talka politeismo grekolatindarrarekin. Jainko bakarra dagoenez, Jainko hori ahalguztiduna da.
- Kreazionismoa: Jainkoak ezerezetik sortzen ditu gauzak, eta abar.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

Idea horien berritasunak eta erradikaltasunak talka egin zuten uste grekolatindarrekin, eta zenbait jarrera sortu ziren: a) filosofia errefusatzea kristautasunaren aurrean: "Sinetsi egiten dut absurdua delako"; eta b) filosofiaren eta kristautasunaren arteko lankidetzeta: "Sinets ezazu ulertzeko; ulertu, sinesteko".

#### **4. Azaldu eta azter ezazu zer egitura duten San Tomas Akinokoak Jainkoaren existentzia frogatzeko eta arrazoimenaren eta fedearen arteko erlazioak azaltzeko ematen dituen argudioek.**

##### **Erantzuna:**

Hona hemen Jainkoaren existentzia frogatzeko argudio edo arrazoibide tomisten oinarritzko egitura:

- Abiapuntua esperientziaren gertakari bat edo datu enpiriko bat da: mugimenduaren existentzia.
  - Kausalitatearen printzipioa aplikatzen da: ondorio orok kausa bat du. Mugimendu orok kausa bat izan behar du. Beste batek mugitzen du mugitzen den oro.
  - Aristotelesen teoriari jarraiki, onartzen da prozesu infinituak ezinezkoak direla. Eragileen segida infinitua ezinezkoa da.
  - Behatutako datu enpirikoaren kausa gisa iristen da Jainkoagana: bera mugitu gabe gainerakoak mugitzen dituen izate batengana iritsi behar dugu. Hala, onartzen dugu Jainkoa existitzen dela lehenbiziko eragile higiezin gisa.
- Egitura hori bera aplikatzen du Tomas Akinokoak beste arrazoibideetan: kausa lehenaren arrazoibidean, kontingentziarenean, perfekzio-mailenean eta munduko ordenarenean.

San Tomas Akinokoa sinetsita dago giza arrazoimenak frogatu dezakeela Jainkoaren existentzia, agerkundez ezagutarazitako egia bat, baina, aldi berean, gizakiak bere gaitasun arrazional guztiak erabiliz eskuratu dezakeena. Izan ere, Jainkoaren existentzia frogatzeko, bost arrazoibide edo argudio garatu zituen arrazoimenean oinarrituta. Egia teologiko guztiak ezin dira arrazoimenaren bidez frogatu. San Tomasek bereizi egiten ditu egia teologiko naturalak, arrazoimen naturalaren argiaren bidez gizakiak eskuratu ditzakeen egia, eta agerkundez ezagutarazitako egia teologikoak, Jainkoaren Agerkundearen argiaren bidez baino eskuratu ezin direnak. Jainkoaren existentzia agerkundez ezagutarazitako egia bat da, baina, halaber, gizakiak bere gaitasun arrazionalak erabiliz eskuratu dezakeen egia bat da. Nolanahi ere, egia batzuk, hala nola Hirutasun jainkotiarra edo Jainkoaren haragitzea, ezingo ditugu sekula eskuratu Agerkundearen argirik gabe.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

**5. Zerrendatu itzazu XVII. mendeko ezaugarri politiko, filosofiko, zientifiko eta kulturalak, eta adieraz ezazu zer eragin izan zuten Descartesen filosofian.**

**Erantzuna:**

Hauek lirateke XVII. mendeko testuinguru historiko eta kulturaletik nabarmendu beharreko alderdiak:

- Absolutismoa (maila politikoan): Descartsek jakintza absolutua sortu nahi du, filosofia bakar bat, erregearen boterea bezala ez ezerk ez inork zalantzan jartzen ez duena.
- Erlijio-batasunaren suntsipena: erlijioaren berrikuntzaren beharraren ondorioz, zatiketa handia gertatu zen Europan, eta hiru eliza (eta, beraz, hiru erlijio-egia) sortu ziren: katolikoa, protestantea eta anglikanoa. Elkarri egindako salaketek eta gatazka sutsuek definitu zituzten elizen arteko harremanak: haietako bat Hogeita Hamar Urteko Gerra (1618-1648) izan zen, non Descartsek parte hartu baitzuen.
- Zientzia berria: zientzia (astronomia eta fisika: Koperniko, Kepler, Galileo...) ikaragarri garatu zen matematika hizkuntzat hartu zenean. Descartsek "matematika unibertsal" deitu zion bere proiektu filosofikoari.
- Barrokoa: XVII. mendean Europan izan zen korrante kultural eta artistikoa da.

Calderónek esaten duenean bizitza ametsa dela eta mundua "antzoki" handi bat dela, garai hartako topikoak erabili besterik ez du egiten, garai hartan dena itxura baitzen, betiereko ilusioa. Descartsek ametsaren zalantzen eta engainuen erdi-erdian ziurtasuna bilatzeko egin zuen saioa ez da erretorikoa, baizik eta desilusioa eta ziurgabetasuna nagusi ziren garai bateko ondorioa.

Filosofo eta matematikari handi horrek parez pare ireki zituen Modernitatearen ateak. Pentsamendu modernoaren heroia da, subjektibotasunaren bidea ireki baitzuen. Filosofiaren abiapuntua subjektua bera izango da: "Pentsatzen dut" da haren sistemaren giltzarria. Grekoen arrazoimenari Erdi Aroko fedearen zama kendu zion: handik aurrera, arrazoimena ez da gehiago fedearen neskame edo zerbitzari umila izango, autonomiaz eta burujabetzaz bere bideari ekingo baitio. Fedea baztertuta geratu zen, arrazoimenaren botere menderatzailearen aurrean.

**6. Identifika itzazu arrazionalismoari dagozkion ezaugarriak eta enpirismoari dagozkionak, eta azaldu ezazu erantzuna:**

- a) Gure ideia guztiak eskuratu egin ditugu.
- b) Baliozko jakintza-iturri bakarra arrazoimena da.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

- c) Jaiotzetiko ideiak ditugula baieztatzen du.
- d) Gure jakintza osoaren iturria esperientzia da.
- e) Ez dago jaiotzetiko ideiarik: adimenean ez dago ezer aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik.

**Erantzuna:**

- a) Gure ideia guztiak eskuratu egin ditugu: enpirismoa. Ideiak esperientziaren emaitza dira.
- b) Baliozko jakintza-iturri bakarra arrazoimena da: arrazionalismoa. Esperientziak erakusten digu nolakoak diren gauzak, ez zer diren. Arrazoimena baino ez da gai erantzun horri erantzuteko.
- c) Jaiotzetiko ideiak ditugula baieztatzen du: arrazionalismoa. Ideiek, esperientziaren mendekoak ez badira, jaiotzetikoak izan beharko dute (funtsezkoek, behintzat).
- d) Gure jakintza osoaren iturria esperientzia da: enpirismoa. Zentzumenak dira mundua hautemateko tresna bakarra.
- e) Ez dago jaiotzetiko ideiarik: adimenean ez dago ezer aurretiaz zentzumenetatik igaro ez denik. Enpirismoa. Aurrekotik ondorioztatzen da.

**7. Azaldu ezazu *alienazio* hitzaren esanahia, eta aipa eta azaldu itzazu, eskematikoki, Marxek bereizten dituen bi motak.**

**Erantzuna:**

Latinezko *alienus*-etik ('besterena, beste inorena dena') eratorritako termino juridikoa da, salmentetan edo lagapenetan erabiltzen dena. Hala, ondasun bat alienatzea eta oparitzea edo saltzea baliokideak dira, hots, inori zurea dena transmititzea. Hedaduraz, esanahi psikopatologiko batekin ere erabiltzen da *alienazioa*, burutik eginaren edo zoratuta egotearen sinonimo gisa. Alienatua, beraz, buruko gaitza duena da, adimena zatitua duena.

Termino horren berezko zentzu filosofikoa *aroztasun* eta *urruntasun* hitzen esanahiari dagokio, eta subjektuak bere buruarekiko duen aroztasuna adierazten dute hitz horiek. Alienazioaren nozioaren zentzu filosofikoa Hegelek, Feuerbachek eta Marxek landu dute, batez ere.

Bi alienazio mota daude:

1. Alienazio erlijiosoa eta filosofikoa: gizakiak sortuak dira erlijioa eta jainko-jainkosak. Gizakiek sortu dute Jainkoa, beren behar eta larritasunen arabera, eta ez alderantziz. Gizateriaren ezaugarriak proiektatu dituzte Jainkoaren ideian. Prozesu horretan, azkenean, gizakiak, benetako sortzaileak, berak sortutako izakia gurtzen du: Jainkoa. Gizakiak





Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

mekanismo alienatzaile horretatik libratu behar du. Beste mundu hobe baten promesak lausotu egiten du gizartea eraldatzeko gogoia, eta onargarritzat ematen ditu mundu honetan onartezinak direnak. Hau ere esan zuen Marxek: "Erljioa herriaren opioa da". Feuerbachen iritziz, filosofia bera, funtsean, estalki filosofikopean ezkutatutako teologia bat besterik ez da.

2. Alienazio politikoa: estatu burgesari egindako kritika. Estatuaren gizarte zibilak sortua da. Jabetza pribatuaren erregimenean, banako guztiak herritar gisa Zuzenbidearen eta Estatuaren eremuan itxuraz berdinduta ageri dira legearen aurrean; benetan, ordea, jabetza pribatuaren erregimenak gizakiak banandu egiten ditu, elkarren aurka jarri, eta errealizatzea galarazten die. Testuinguru horretan, estatuaren klase menderatzailearen zerbitzura dagoen arma bat da, klase menderatua arrastoan sartuta edukitzeko erabiltzen duena.
3. Alienazio ekonomikoa. Ekonomia politikoaren kritika: gizarte kapitalistan lanak ez gaitu duin egiten, alderantziz baizik; desjabetu eta alienatu egiten gaitu. Izan ere, sistema ekonomikoa liberalean, lana esplotatzeko baliabide bihurtzen da. Alienazio ekonomikoa gainbalioari lotzen zaio, hots, Marxen iritziz langile-klasea esplotatzeko oinarria den mekanismoari.

**8. Adieraz itzazu "jauntxoen moral"aren eta "esklaboen moral"aren arteko desberdintasun nagusiak, eta azaldu itzazu "ahulen moral"ari egin zion kritikaren funtsezko alderdiak.**

**Erantzuna:**

Moral tradizionala (sokratikoa, platonikoa eta kristaua) antinaturala da; hau da, naturaren eta bizitzaren aurka doa. Legeen eta dekalogoen indarrez bizitzari eta senari uko egiten dien moralak da hori. Orain arte erakutsitako moralak da. Haren muina "beste bizitzan", ideien munduan edo zeruan dago. Beste mundu bat asmatzen du, mundu hau gutxiesteko. Ildo beretik, gorputz bat asmatzen du, arima gutxiesteko. Ahuleziaren eta dekadentziaren moralak da, non ahulen balioak indartsuei gailentzen baitzaizkie.

Nietzschekek, beraz, bi moral mota bereizten ditu:

- a) Esklaboen moralak: moral ebanjelikoa da, ezintasunaren eta ahuleziaren moralak. Kaskarkeriaren moralak da, bizitzaren kontrako mendeku-senez eraikitako moralak. Moral horretan, ona da pobrea, txiroa, umila, gaixoa dena; ahulen moralak da.
- b) Jauntxoen moralak: Nietzschekek esklaboen moralaren ordezkotzat gisa proposatzen duena da. Zaldunaren moralak da, bizitzaren handitasuna eta boterea maite dituenaren moralak. Moral



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS

MAYO 2011

**HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA**

noblea da, bizitzari baietz esaten dioten indartsuen morala.  
Supergizakiaren morala da.

Nietzscheren arabera, lehenbiziko morala jauntxoaren morala izan zen, indarra eta independentzia goresten dituen. Baina esklaboen matxinada batek, juduek eta kristautasunak bultzatuak, balio moralak iraultzea eragin zuen. Antzina zapalduta bizi izan zirenek metatu zuten erresumina sortzaile bilakatu zen, eta ahulak goresten dituzten zenbait balio sortu zituen: obedientzia, otzantasuna, mendetasuna... "artaldearen berezko balioak". Haren ustez, juduek, logika beldurgarri batekin, irauli egin zituzten balio aristokratikoak, hots, indartsuen edo jauntxoaren morala. Kristautasunak onartu egin zuen, halaber, iraultza hori. Nietzschek "legeen harlauzak hausteaz" hitz egiten duenean, ahulen balioez ari da, jauntxoaren morala —hots, supergizakiaren morala— ezartzeko gainditu eta eraitsi behar diren esklaboaren moralaren balioez.

### OINARRIZKO ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

Ondoren, azterketak zuzentzeko zenbait irizpide azalduko ditugu. Galdera bakoitzaren puntuazioa 2,5 da, hiru faktorearen arabera bananduta: orokortasuna (1,5), koherentzia (0,75), funtsa (0,25).

1. **Orokortasuna:** gaiaren egitura, orokortasun kontzeptuala eta historikoa —gero eta dimentsio gehiago hartzen dituzten zirkulu zentrokideak—, izango da zuzenketaren oinarrizko ildoak; beraz, zenbat eta sakonagoa eta zabalagoa izan erantzuna, orduan eta handiagoa izango da puntuazioa, irizpide hauen arabera:
  - Erantzunean ageri den edukia (esaten dena) baino ez da kontuan hartuko (esaten ez dena kontuan hartu gabe). Beraz, puntuazioa metatuz joango da; gutxituz, sekula ez.
  - Sakontzea honela ulertu behar da: galdetzen den filosofiaren eta/edo garaiaren ideia nagusiei pixkanaka hurbiltzea.
  - Zabaltzea, honela: ideia eta/edo inguruabar historiko gehiago aipatzea.
2. **Koherentzia:** azalpenaren ordenari dagokio. Ideiak logikaz ageri dira ordenatuta lehenetsun baten arabera —epistemologikoa, ontologikoa, historikoa...—. Nolanahi ere, erantzuna ibilbide ulergarri baten bidez garatzen da.
3. **Funtsa:** testuan kontraesanik ez egotea —zerbait baieztatzea, eta, gero, haren kontrakoa edo gaiarekin zerikusirik ez duena esatea; filosofiak ez nahastea, ez eta garai historikoak ere, eta abar—.



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
HAUTAPROBAK 25 URTETIK  
GORAKOAK

2011ko MAIATZA

**FILOSOFIAREN  
HISTORIA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD PARA MAYORES  
DE 25 AÑOS*

*MAYO 2011*

***HISTORIA DE  
LA FILOSOFÍA***

---

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO  
ERLAZIOA**

<b>GALDERA</b>	<b>EZAGUTZA-ADIERAZLEA</b>
1	1.5
2	2.5, 2.9
3	4.2
4	5.5
5	6.1
6	6.2
7	8.4
8	9.4